


AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUAHIRIKO UDALA

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Euskarazko aisialdiko ekintzak 2018ko Udalekuak

Zein da helburua	Aurreinskripzioa eta lizenziak
Norentzat da?	Lehen Hezkuntzako 1 eta 6. mailen arteko ikasleak
Baldintzak	Solidaritate programa baten bidez, familia ermuarrek hartutako umeak
Zer organok erabakitzen du?	Euskarazko Arloko zinegotziak
Zer unitatek tramitatzen du?	Euskarazko Sailak
Nola eman hasiera?	Deialdian zehaztutako epe barruan pertsona interesdunak eskatuta
Noiz aurkeztu behar da eskaera?	AURRE-INSKRIPZIOA: Deialdia www.ermua.es web gunearen bitartez, atarietan jartzen diren ohar-informatiboen bidez edota herriko ikastetxeetara informazioa bidaliz argitaratuko da. 2018ko maiatzaren 22an arte INSKRIPZIOA: Behin betiko zerrendak argitaratu eta bost egunen barruan
Tramitazio epea	Berehala
Administrazio-isiltasunaren eragina	Ez-onartua
Tasak/ordainketak	101,50€ (bi anaia-arreba apuntatuz gero, bakoitzak 84,25€)
Oharrak	Ez da onartuko epea kanpo aurkeztutako eskabidea Plaza kopurua 250ekoa da, horietatik gehienek, %4 solidaritate programa baten bidez, familia ermuarrek hartutako umeentzako gordetzen dira Aurre-inskripzioan izen emateak eskaintako plaza kopurua gainditu egingo balu. Plazen esleipenerako ondoko irizpideak ezarriko dira: -Ermuan erroldatutako umeek lehentasuna dute, hala ere, eskaintako plaza kopurua gaindituko balitz, Gizarte Zerbitzuetako txostenaren bitartez ziurtatuta oinarritzko behar familiarrei aurre egiteko baliabide nahikoak ez dituztenek, hots, familia unitatearen urteko sarriak 14.000€koak baino gutxiago dituztenek erabateko lehentasuna izango dute -Jarraian gainontzeko umeen artean zozketaren bidez esleitu lirateke gelditzen diren plazak, onartutako zerrenda eta itxaron zerrenda osatuz Ermuko Euskarazko Zerbitzuak zozketako emaitzen berri emango du. Informazio hori http://www.ermua.es orrialdean ikusgai egongo da. Horrez gain, Abiapuntuko eta

	Euskara Saileko bulegoetan ere ikusi ahal izango dira zerrendak Eskatzaileak behin-betiko izen-ematea burutzeko tasak dagokion epean ordainketarik egiten ez badu, onuradunak aisialdiko ekintzetan parte hartzeko eskubideari uko egiten diola ulertuko da, plaza galduko du eta itxaron-zerrendan dagoen lehenari deituko zaio Udalekuak hasi baino lehen umea istripuren bat edo gaixotasunaren bat izanez gero, matrikulazio-dirua jasotzeko aukera izango dute gurasoek. Holakoetan eskabidea Abiapuntun aurkeztu beharko da, medikuaren agiria eta ordainketa bideratzeko kontuaren titularren nortasuna adierazten duen agiria erantsiz Euskara Sailak tramitea hobeto burutzeko aparteko beste edozein dokumentazio eskatzeko eskubidea izango du
Tramitatze bideak	AURRE-INSKRIPZIOA: -Ermuko Egoitza elektronikoan (www.ermua.es) -Abiapuntu - Konbentukoa, 3 - Astelehenetik ostiralera: 8:00etatik 15:00etara Bulegoetara bertararuta ematen den arretaren kasuan, zerbitzu ona eta eskatutakoari ahalik eta arinen erantzun ahal izateko, zure posta elektronikoa erabiltzeko baimena eskatzen dizugu zure eskariarekin zerikusia duten administrazio-egintza guztiak komunikatu, dokumentazioa trukatu eta jakinarazpenak bidaltzeko INSKRIPZIOA: -Hitzartutako banketxeetan -Ordainketa-pasabidean -Abiapuntuko bulegoetan
Araudia	23. Ordenantza Fiskala. Zerbitzu soziokultural eta euskarazkoak emateagatik tasa
Datuak babesteko Lege organikoa betetzea	Eskabideko datuak ondoko ezaugarriak dituen fitxategi batean bildu/ko dira: - Izena: Euskarako espedienteak. - Arduraduna: Ermuko Udala. - Helbidea: Valdespina Markesa 1 - 48260 Ermua (Bizkaia). - Helburua: Euskara saileko espedienteak, euskara-ikasleentzako diru-laguntzak, talde eta elkarreentzako diru-laguntzak, lehiaketetako partaideen datuak eta aisialdiko ekintzak gestionatzea eta Euskara Planaren jarraipena eta garapena. -Datuak lagatzea eta helburua: Euskara Batzordeari, lehiaketetan parte hartzen



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUAHIRIKO UDALA

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Euskarazko aisialdiko ekintzak 2018ko Udalekuak

dutenen kasuan lehiaketen antolatzaileei, horien antolaketa gestionatzeko, eta udalekuetan parte hartzen dutenen kasuan eta aseguru-etxe eta antolatzaileei, ekintzak gestionatzeko.

Fitxategia Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi zaio, beraz, beharrezko segurtasun-neurriak ditu.

Honelako eskatzeak suposatzen du interesduna jakinaren gainean dagoela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburuarekin tratatzeko.

LOPD legeak espresuki aitortzen dituen eskubideak egikaritzeko, alegia: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kontra egiteko edo deuseztapena eskatzeko eskubideak idatzi bat aurkeztu beharko zaio Ermuko Udalari:

- lehen adierazitako helbidera, postaz bidaltzen baduzu
- udal web-aren bitartez: www.ermua.es>Abiapuntu (egoitza elektronikoa) > Udal kudeaketak

Informazio gehiagorako: "Datu Pertsonalen Babesaren Arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-erakundeetarako" kontsulta dezakezu interneteko www.avpd.es edo www.eudel.net

* Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko

Administrazio-bidean behin betikotasunez jakinaraziko zaizun erabaki edo ebazpenaren kontra aurkeztu ahal izango duzu:

- Zer: administrazioarekiko auzi-errekurtsoa
- Nori: dagokion txandako administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiari;
- Epea: bi hilabete, dagokion jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu baino lehen, jakinarazi zaizun ebazpenaren kontra aurkeztu ahal izango duzu:

- Zer: berraztertze-errekurtsoa
- Nori: erabakia hartu zuen organo berari
- Epea: hilabete, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita

**Erreklamazio eta
errekurtsoak
aurkezteko bideak**

**Zerikusia duten
dokumentuak**

Egitaraua

Zozketarako arautegia

23. Ordenantza fiskala